


2024ko abenduan Euskal AEko industria-prezioak % 1,2 igo ziren, aurreko hilaren aldean

2023ko abenduaren aldean, industriako prezioek % 1,6 egin dute gora

2024ko abenduan, Euskal AEko industria-prezioak % 1,2 igo ziren 2024ko azaroaren aldean, Eustatek landutako datuen arabera. Abenduko urte arteko tasak (azken hamabi hilabeteetan industria-prezioek izandako aldakuntza) % 1,6ko igoera izan du.

Azterketa zehatzago batek agerian uzten du, 2024ko abenduan, *Energia elektrikoa*, *gasa eta lurruna* (% 16,8) eta *Industria kimikoa* (% 1,5) sektoreek igo dituztela gehien prezioak, aurreko hilaren aldean. Aitzitik, hileko arteko jaitsierarik handienak izan zituzten sektoreak *Erauzketa industriak* (% 1,7) eta *Zurgintza, papera eta arte grafikoak* (% 0,4) izan ziren.

Euskal AEko industria-prezioen indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa. (%)



Iturria: Eustat. Industria-prezioen indizea

Ondasunen helburu ekonomikoaren araberrako sailkapenari jarraituz, 2024ko azaroaren aldean, *Energiaren* prezioak % 6,7 igo dira. *Bitarteko ondasunen* prezioak % 0,1 igo dira, eta baita *Kontsumo-ondasunen* ere. Azken kasu horretan, *Kontsumo-ondasun iraunkorren* prezioak % 1,2 igo dira eta *Kontsumo-ondasun ez iraunkorren* prezioak % 0,2 jaitsi. *Ekipoko ondasunen* prezioak, azkenik, ez dira aldatu aurreko hilabetearen aldean.

Urte artean, 2024ko abendua 2023ko abenduarekin alderatuta, prezioen igoerarik handienak *Energia elektrikoa, gasa eta lurruna* (% 19,3) eta *Ura* (% 6,9) adarretan izan dira. Aitzitik, urte arteko prezioetan jaitsierarik handienak izan dituzten adarrak *Kokeriak eta petrolioia fintzea* (% 6,1) eta *Erauzketa industriak* (% 0,5) izan dira.

Euskal AEko Industria prezioen indizea. Aldakuntza-tasak (p). Abendua 2024

	Indizea	Aldearen %	
		m / m-1	m / m-12
Indize orokorra	112,7	1,2	1,6
SEKTORE-BANAKETA			
Ateratze-industriak	126,6	-1,7	-0,5
Manufaktura-industria	114,8	0,2	0,5
Elikaduraren, edarien eta tabakoaren industria	123,5	0,0	2,5
Ehungintza, jantzigintza, larrugintza eta zapatagintza	111,4	-0,3	4,0
Zurgintza, papera eta arte grafikoak	122,6	-0,4	3,1
Kokeak eta petrolioia fintzen	115,9	1,4	-6,1
Industria kimikoa	131,3	1,5	5,8
Botiken fabrikazioa	108,1	0,0	2,7
Kautxu eta plastikoa, beste produktu mineral ez-metalezkoak	118,4	0,4	0,7
Metalurgia eta produktu metalikoak	110,0	-0,2	-0,4
Informatikako, elektronikako eta optikako produktuen fabrikazioa	111,0	-0,2	3,1
Material eta ekipoen fabrikazioa	113,2	0,3	-0,2
Beste inon sailkatu gabeko makineriaren eta ekipoen fabrikazioa	112,7	0,4	1,4
Garraioko materialen fabrikazioa	114,1	-0,1	2,6
Altzariak, beste manufaktura-ind., konponketa eta instalazioa	116,1	0,6	5,0
Energia elektrikoa, gasa eta lurruna	88,9	16,8	19,3
Ura	125,7	0,0	6,9
INDUSTRIA-SEKTORE HANDIEN ARABERA			
Kontsumo-ondasunak	119,5	0,1	3,5
Kontsumoondasun iraunkorrak	114,9	1,2	5,8
Kontsumoondasun ez-iraunkorrak	120,8	-0,2	3,0
Ekipo-ondasunak	113,1	0,0	2,2
Bitarteko ondasunak	114,7	0,1	0,5
Energia	104,2	6,7	2,5

Oinarria 2021=100

(p)Behinbehineko datuak

m / m-1: Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko hilaren (m-1) aldean

m/m12: Azken hileko (m) aldakuntza-tasa, aurreko urteko hil beraren (m-12) aldean

Data 2025eko Urtarrilaren 23a

Iturria: Eustat. Industria Prezioen Indizea

Xede ekonomikoaren arabera ondasun-talde handien prezioen urte arteko aldakuntza, kasu guztietan, gero eta handiagoa izan da. *Kontsumo-ondasunek* % 3,5eko igoera izan dute, *Kontsumo-ondasun iraunkorrek* % 5,8koa eta *Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrek* % 3,0koa. *Energiaren* prezioak % 2,5 igo dira eta *Ekipoko ondasunenak* % 2,2. Azkenik, *Bitarteko ondasunen* prezioek % 0,5eko urte arteko igoera izan dute.

INFORMAZIO-OHARRA

Eustatek eskerrak eman nahi dizkie lagundu duten establezimendu guztiei egindako ahaleginagatik. Horiei esker, hilabete honetako indizea laginaren % **85,54ko** estaldurarekin kalkulatu da.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62